

# WIKIPEDIA PROIEKTUA: “MANDATO FRANCÉS DEL LÍBANO”

GOMEZ DIEZ, Francisco irakasleari aurkeztua

2019-2020 ikasturtea

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV / EHU

Arloa: Mundu garaikidearen oinarriak

Taldea: Hizkuntzalariak 31

Gradua: Frantses filologia

Entrega epea: 2020ko maiatzak 6

24.taldea

Taldekideak:

- HERNANDEZ AZAROLA, Igone
- ITURBE TELLERIA, Maddi
- URIBESALGO MUÑOZ, Irati

## Aurkibidea:

0. Sarrera: nondik norakoak
1. Oinarrizko kontzeptuen ulerkerak
2. Testuingurua
  - 2.1. Mandatuaren jatorria
  - 2.2. Mugimendu nazional arabiarraren kontrako harresia
3. Mandatua indarrean
4. Ondorioak
5. Bibliografia
6. Gehigarria

## 0. Sarrera: nondik norakoak

Lehenik eta behin lanaren gaiaren argibideak ematea irakurleari ongi letorkiokela pentsatu dugu; honenbestez, “mandatua”, “Libano” eta “Frantzia” kontzeptuak azaltzea egoki iruditu zaigu. Jarraian mandatuaren jatorria eta Libanon izandako nazional arabiar mugimenduaren kontrako harresia izango ditugu aztergai. Ondoren, Mandatua testuinguruan jarriko dugu, indarrean egon zeneko garaia eta egoera azalduz, eta baita Libanok inperialismo kolonialaren hatzaparretatik ihes egin eta deskolonizatzea lortu zueneko ere. Prozesu gogor eta luze honen ondorengo etapa eta gaur egungo egoeran izan duen eragina azaltzarekin bat, ikasitakoaz ondorioak ateratzen saiatuko gara.

Gai honen inguruan euskaraz eta gazteleraz aurkitu dugun informazio urria dela eta, eta frantses filologia ikasten ari garela kontuan harturik, informazio gehigarria hizkuntza honetan bilatzea erabaki dugu. Honek iturri aniztasuna eskura jarri digu, beste behin eleaniztasunaren abantailez balia gaitzkeela argi utziz.

# 1. Oinarrizko kontzeptuen ulerkerak

## 1.1. Mandatua

Latineko *mandatum* termino maskulinotik eratorritako kontzeptua da. Beste esanahi batzuk ere badauzkan arren, kasu honetan pertsona batek beste batekiko betebeharr juridiko batean ordezkatzeko duen boterean oinarritzen da. Espezie bidezko<sup>1</sup> trukean ordaindua izateko aukera du eta era desberdinetan interpretatua izan daiteke:

- Justizia bidezko mandatua: botere publikoak, magistratu edota jurisdikzio batek, norbait esleitutako arresto edo atxiloketa.
- Nazio arteko mandatua: bere burua administratzeko antolakuntza nahikoa ez duten lurraldeei Nazioen Liga<sup>2</sup> erakundeak aplikatutako erregimena, tutela hartzen duen herrialdeak mandatuaren menpe dagoenaren botere ordezkapena bermatu eta independentziara bultzatzeko ahalegina egin beharko du.
- **Mandatupeko lurraldea:** administrazioaren kudeak eta atzerriko botere politiko baten esku utzi duen lurraldea.


## 1.2. Libano

كلنا للوطن ، للعلا للعلم lema du, arabieraz “Denok aberriaren, loriaren eta banderaren alde” esan nahi duena. Bertako hiriburua eta baita biztanle gehien dituen hiria Beirut da, I 33°53’13” E 35°30’47” koordenatuetan kokatua dagoena, Ekialde Hurbilean. Iparralde eta ekialdean Siriarekin egiten du muga, hegoaldean Israelekin eta mendebaldean Mediterranearekin. Bertako hizkuntza ofiziala arabiera da, baina arabiera libanesa eta frantsesa dira hitz egiten direnak. Truke txanpona libra libanesa da eta CET (UTC+2) ordutegi zonaldean kokatua dagoen herrialdea da.

<sup>1</sup> **Espezie bidezko ordainketa:** gaur egun frantsesez txanponekin ordaintzeko baliabideari erreferentzia egiten dio, historian zehar espezieen bidez ordaintzeko ohitura izan baitu, sukaldatzeko espezia jangarriez ari gara.

<sup>2</sup> **Nazioen Liga:** Nazio Batuen Erakundearen aurrekaria.

1516tik 1918ra bitarte Otomandar Inperioaren parte izan zen, eta honek Lehen Mundu Gerran izandako arrakastaren ondorioz, Frantziako mandatupean barnebildu ziren Libano osatzen duten bost probintziak. Frantsesek Libanoko Mendiaren mugak zabaldu zituzten maronitak eta drusoak ere lur bereetan sar zitezten. 1943ko azaroak 22an Libanok independentzia lortu zuen. Ordura arte ezagutu gabeko sistema politiko bat ezarri zen herrialdean: konfesionalismoa, elkarre erlijioso ezberdinen arteko gobernu mota alegia. Bechira El Khoury (Libanoko lehen Lehendakaria), Riad el-Solh



Irudia 1: Club-des-voyage. *Libanoko mapa*

(Lehen Ministroa) eta Emir Majid Arslan II (Defentsako lehen Ministroa) independentzia lortu ondoren, sortutako egungo Libanoko Errepublikaren aitzindaritzat izendatzen dira. Hala eta guztiz ere, tropa atzeritarrek beste hiru urte behar izan zituzten herrialdetik alde egiteko hautua egiteko.

1970ko hamarkadara arte Libano Ekialde Hurbileko erdigune ekonomikoa izan bazen ere, 1975 eta 1990 bitartean izandako Gerra Zibilak egoera ekonomikoa guztiz baliogabetu eta oreka politikoa kolokan jarri zuen. 2006rako herrialdea orekatzen eta aurrera pausuak ematen zebilela zirudien: Beirut osatzen ari zen, turistak berriro heltzen hasi ziren... Baina uda partean hilabete iraun zuen Hezbollah-en eta Israelgo armadaren arteko Libanoko Gerra izan zen. Honek galera handiak sortu zituen herritarrei eta azpiegiturei zegokienean. Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Aholkularitzak su etena eskatu zuen 2006ko abuztuak 14ean.

Orduztik, barne zein kanpo gatazaka askotan murgildua egon da Libano, besteak beste, inguruko herrialdeak liskarrean dituelako (Siria, Palestina eta Israel); hala eta guztiz ere, Beirut Ekialde Hurbileko erdigune ekonomikoko eta merkataritzako erdigune handi eta garaikideenetako bat bilakatu da. Hiri honetan bertan ere batzuen eta besteen arteko alde ekonomikoa izugarri handia da: lurren %40a biztanleria aberatsenaren %1ak du.

Errepublikari parlamentario baten forma hartzen du gobernuak gaur egun, ordezkari nagusiak Michel Aoun Lehendakaria eta Hassan Diab Lehen Ministroa dituelarik. Organo legegilea Libanoko Asanblada Nazionalak osatzen du.

1973tik Frankofoniaren Nazioarteko Erakunderen<sup>3</sup> parte da. Kulturartekotasun handiko herrialdea da, batez ere arkitekturari zein gizartearen nabari den faktorea; adibidez, kultura musulmanean ohikoak diren mezkitak, kristau ortodoxo zein maroniten elizak, gaurkotasuna islatzen duten etxeorrazak ere ikus daitezke hiri handienetan.

### 1.3. Frantzia

*Liberté, égalité, fraternité* lema du, frantsesez “Askatasuna, berdintasuna, anaitasuna” esan nahi duena. Bertako hiriburua eta baita biztanle gehien dituen hiria ere Paris da, I 48°51’ E 2°21’ koordenatuetan kokatua dagoena, Europan. Mendebaldean ozeano Atlantikoarekin egiten du muga, eta iparraldetik ekialderantz Belgika, Luxenburgo, Alemania, Suitza, Mediterraneoaren itsasoa, Espainia eta Andorrarekin. Bertako hizkuntza ofizial<sup>4</sup> bakarra frantsesa da, baina okzitaniarra, bretoierra, euskara eta beste hizkuntza gutxi batzuk ere hitz egiten dira.




Irudia 2: ANL. laorden. *Frantziako mapa fisiko*

Truke txanpona euroa da eta CET (UTC+1) ordutegi zonaldean kokatua dago, udan, berriz, CET (UTC+2)an, eta Europatik kanpo dituen lurak beste ordutegi zonalde batzuetan kokatuak daudela kontuan hartu beharra dago.

**3 Frankofoniaren Nazioarteko Erakunde:** frantses hiztun eta herrialdeek osatzen dute. Urte osoan zehar frantses kultura eta artearekin lan egiten badute ere, hilabete nagusia martxo delako esan genezake. Euskal Herriko Unibertsitateko frantseseko departamentuko irakasleek ere Bilboko frankofoniar eskeinitako jardunaldietan parte hartzen dute ia urtero. 2020ko otsailaren 28an adibidez Nadia Brouardelle, Juan Manuel Ibeas-Altamira eta Lydia Vazquez irakasleek, antolatuta zeuden hitzaldietan parte hartu zuten.

**4 Europako hizkuntza gutxituen gutuna:** Frantziak dokumentu honekiko sinadura atzera bota zuen, frantses guztien arteko berdintasunaren ideologiaren oinarrietako bat hizkuntza batasuna baitu. Gaur egun herrialdeko azterketa eta paper administratibo ofizial guztiak frantsesez egiten dira, euskara bezalako beste hizkuntza gutxituetako komunitate batzuk ere hori alda dadin lanean diharduten arren.

1789an Frantziako Iraultza eman zen, Antzinako Erregimenetik egungo demokrazia parlamentarioarako pausu nagusienetako bat. Ondoren gobernu aldaketa askoko mendea heldu zen, non herrialdea aurrera eta atzera ibili zen bai geografikoki eta baita ideologikoki ere. Hemen dugu XIX.mendeko Frantziako kronograma labur bat. Ardatzaren gainean gobernu motak kolore desberdinetan agertzen dira, dagozkien agintari eta garaiekin batera<sup>5</sup>. Ardatzaren azpiko aldean, berriz, mende horretako gertakari nagusi batzuk adierazi ditugu, tonalidatearen arabera goiko gertakariekin zerikusia duten tonontan desberdinduta<sup>6</sup>.



Kronograma 1: Frantziako XIX.mendeko denbora lerroa, "Autoreek egin" Drawio programarekin egin.

Lehen Mundu Gerrako partaide nabarmenetako bat izan zen Frantzia. Irabazle atera eta Bigarren Mundu Gerran Aliatuen blokeko partaide ere izan zen, herrialde erdia alemaniar tropek laster okupatu zuten arren. Denbora guzti horretan zehar, besteak beste, Libano mandatupean izan zuen.

**5 Ardatzaren goiko aldeko koloreak:** laranja Inperioak, berdez Monarkiak eta gorritz Errepublikak.

**6 Ardatzaren beheko aldeko kolorez:** horiz Inperioen porrotak, urdinez Monarkien berrezarkuntzak, arroxez Errepublikaren hasierako gertakari nagusiak eta grizez literatura, arte nahiz arkitekturari erreferentzia nagusi batzuk.

Errepublika erdi-presidentialaren forma hartzen du gobernuak gaur egun, ordezkari nagusiak Emmanuel Macron Lehendakaria eta Édouard Philippe Lehen Ministroa dituelarik. Organo legegilea Parlamentuak, Senatuak eta Frantziako Nazio Biltzarrak osatzen dute. Gaur gaurkoz 1958an Charles de Gaullek abian jarritako eta Asanblada Nazionalak onartutako konstituziopeko V. Errepublikan bizi da herrialdea. Denbora luzez izan da artearen, zientziaren eta filosofiaren eruedetako bat, eta hau ere Frankofoniaren Nazioarteko Erakundearen parte da.

## 2. Testuingurua

### 2.1. Mandatuaren jatorria

François Ia (1494-1537) Frantziako erregeak jada bazituen XVI.mendean Siria eta Libanoko Mendia begiko, honenbestez esan genezake mendeetan zehar eskuratu nahian ibili diren lurak direla azken hauek. XIX.mende amaieratik XX.mende hasierara bitartean nazionalismo arabiarrekiko sentimenduak haziz zihoazen Ekialde Hurbilean.

Jendearen gehiengoa otomanismoaren ideien defendatzaile bazen ere, etnia desberdinetako nazionalismoak sortzen hasi ziren, kulturartekoak, multikonfesionalak<sup>7</sup>. Hala ere, nazionalismo mota hau musulmanen artean soilik zen nagusi, kristauak Otomandar Inperioari lotuak jarraitzen baitzuten, nazionalismo arabiar laikoa aldarrikatuz. 1908ko iraultzaz geroztik, identitate batekin identifikatuak sentitu ziren arabiarrek Parisen kongresu bat deitzea erabaki zuten, bertan berrehun bat ordezkari herri arabiarren aitortzea eskatu zioten Otomandar Inperioari, baina honek ez zuen onartu.

Fayçal ibn Hussein-ek Damasén zegoela iraultza arabiarren gidaritza hartu zuen, talde arabiar nazionalista sekretu batzuen tesi bihurtzera iritsi arte. Gerraren ondorioz mugimendu hau politikoagoa eta muturrekoagoa bihurtu zen, lurralde arabiarren independentzia aldarrikatuz. Britainiarrek arabiarrekin elkarlana negoziatu ostean, Frantziak Ekialde Hurbilarekiko kontrol militarra izatea erabaki zuen.

1914an Lehen Mundu Gerra hasi zen. Batetik, britainiarrek, italiarrek, errusiarrek eta frantsesek osatzen zuten Aliantza blokea eratu zen; eta bestetik, alemanek, austriarrek, hungariarrek, Otomandar Inperioak eta bulgaroek osatutako Ardatza.

<sup>7</sup> Etnia desberdinetako nazionalak, kulturartekoak eta multikonfesionalak baziren ere, gehiengoa musulmana zen.

1916ko ekainak 10ean britaniarren hitza itsu-itsuan sinistuta, Hussein-ek arabiarren errege izendatu zuen bere burua eta orduztik Jordanian festa nazionala ospatzen da data honetan. Arabiar mugimendu nazionalistak Beiruteko eta Libano mendiko intelektualak mobilizatu zituen. Batzuek subirano baten zuzendaritzapean Siriaren independentzia nahi zuten, beste batzuek aldiz, talde honetakoak dira nagusiki marondarrak, Frantziarekin zeuzkan lotura pribilegiadunek babestuta, estatu libandar independentea desiratzen zuten.

1916ko azaroaren 16an Verdun-go gudaren erdian Mark Sykes britaniar eta François Georges-Picot frantses diplomatikoek “Sykes-Picot” deituriko isilpeko hitzarmena adostu zuten. Gerraren ostean Otomandar Inperioak galduko zituen lur apurren banaketa aurreikusi eta Frantziak Siria eta Libanoko Mendia bere menpe hartzea proposatu zuen eta Britania Inperioak Palestina. Horiek horrela, Gerra amaitzean, 1918ko urriak 8an, eskudroi frantses bat Beiruteko kostaldera heldu zen. Ordurako aliatu britaniarrek jada eskualde osoa hartua zuten eta elkarrekin sartu ziren hirian. Nazionalista arabiarrek euren lagun britaniarren laguntzaz, “*Arabiako Lawrence*”, Siriako hiriburua den Damas erdigune izango zuen estatu independente baten esperoan zeuden.

Ekialde Hurbileko, Parisko zein Londoneko aztoramendua lasaitze asmoz, 1918ko azaroaren 8an hurrengo adierazpena egin zen:

“Erresuma Batua eta Frantzia ados daude, Aliatuek aske utzitako Siriako eta Mesopotamiako gobernu indigenen berrezarkuntza eta administrazio lanetan laguntzeko.”

1919ko urriaren 27an, Hoyek marondar patriarkak Parisko Bake Konferentziako Batzar Nagusiari “memorandum” bat ematen zion; honekin bere muga historikoaren barruan eta Frantziaren laguntzaz, Libanoren independentzia erreklamatu.

1920ko martxoan, arabiar nazionalistek arabiar monarkia bat aldarrikatu zuten Sirian, Libano mendiari autonomia estatutu bat finkatu. Hala eta guztiz ere, armada frantsesak saiakera hau eten zuen. Apirilaren 25a: San Remoko batzarraren ondotik, Frantziak Siria eta Libanoko *mandatua* argitara ematen du Henri Gouraud generalaren eskutik. Bide honetan, protektoratuak<sup>8</sup> sortu ziren. Antzinako probintzia otomandarrak Errepublika laiko banatan

**8 Protektoratua:** orokorrean nazioareteko hitzarmen baten ondorioz adostutako erregimen juridikoa; honen arabera ahalmen handia duen Estatuak beste bat zaintzeko ardura hartzen du, atzerriko harremanekiko, segurtasunarekiko, eta batzuetan administrazioarekiko kontrola hartuz, beti ere bere nazioarteko pertsonalitatea mantenduaz.



bilakatu ziren arrez geroztik, non erlijio erkidegoak sortu zituzten. Uztailak 24ko Khan Mayssaloun-en gudua<sup>9</sup> eta gero, erreinu arabiarren aldekoek lurraldea utzi behar izan zuten, agintari mandatari frantsesaren eskuetara pasa baitzen.

## 2.2. Mugimendu nazional arabiarren kontrako harresia

Mandatuaren inposizioan zerikusia izan zutenek Ekialde Hurbilean izandako arrakasta ikusirik, Afrikaren iparraldeari begira jarri ziren antzeko prozesu bat martxan jarri nahian. Prozesu honetan, aipatzekoa da Henri Gouraud. Frantziar Errepublikako Komisario Gorena izan zen Ekialde Hurbilean 1919-1923 urte bitartean eta Parisko Gobernatzaille militar gisa aritu zen lanean orduztik 1927ra arte. Hain zuzen ere, ikusten ari garen kolonizazio frantses honen historian zerikusi handia izan zuen, batik bat Afrikan Marokoko mendebaldean izan zuen presentziagatik eta aurrerago azalduko dugun Siria eta Libanon bete zuen paperagatik.



Irudia 10: Wikipedia. *Henri Gouraud*

Gauzak horrela beraz, hasiera batean Mandatu berri honen ideia-aren partaide zirenen artean adostasun puntu batera iritsi ziren arren, laster etorri ziren desadostasunak zein eztabaidak. Izan ere, bi jarrera nagusitu ziren: autoritarioa eta liberala.



Irudia 11: Centro de Estudios Estratégicos Magrebíes.  
*Magreb*

Lehenengoen, Mandatuak suposatuko lukeen mugimendu nazional arabiarren zapalkuntzaren ondorioz, Magreben, hau da, arabiar munduaren mendebaldeko zatian, Frantziaren presentziaren iraunkortasuna bermatuko zela defendatzen zuten.

Bigarrenengoen, aldiz, Ekialde Hurbileko irekiera politikoa edo bertako liberalizazio prozesua proposatu zuten. Horrela, Afrika iparraldeko mehatxuak neutralizatu eta Frantziaren menpekotasunaren prozesuan murgiltzen lagunduz.

**9 Khan Mayssaloun-en gudua:** Maysalunen igarobidea izenez ere deituriko bataila da. 1920ko uztailaren 23an, Siriako eta Frantziako indarren arteko borroka armatua izan zen. Damaskotik 20 km mendebaldera, Maysalun hiriaren inguruan gertatu zen. Etsaitasunak, frantsesak, Faysal erregearenpean aldarrikatu berri zen Hashim al-Atassiren gobernu nazionalista kentzeko mobilizatu zirenean hasi ziren.

Honek denak, egoera aztertzeraz eraman zituen Mandatu berria martxan jarri nahi zuten partaideak. Ondorioz, potentzia frantsesak Ekialde Hurbileko lurraldeetatik ekonomikoki gutxi eskuratzen zuela ikusirik egoera kolokan jarri zen. Hori dela eta, bertako Mandatuak indarrean segi zezan Afrikako mandatu berriaren ideia ezinbesteko bihurtu zen. Honek, beraz, Magreb frantziarren kolonizazioaren eskuetan erortzera eraman zuen.

Ikus dezakegun bezala, egoera honetan arabiar faktorea geroz eta indar handiagoa hartzen joan zen Frantziarren ideietan eta Gouraud politikariak ere eragin handia izan zuen arestian aipaturiko misioetako bat betetzen; hau da, “Gran Líbano” gisa ezagutzen den lurraldea ekarri zuen, honek, Siriako eremuen banaketa berria suposatuz.

Zentzu honetan, beraz, eratu berri zen Libanon kolonizatzaile frankofonoek inposaturiko kristautasuna babestea agindu garrantzitsu bat izatera pasa zen, ideia honi elkarte musulman gutxitu batzuen babesak gehituz. Izan ere, azken hauek “sunnismo” deritzon islamiar erlijioarekin loturik zegoen emantzipazio prozesu baten bidez etekina ateratzeko bidea ikusi baitzuten. Gauzak horrela, “alawi”, “druzoak” edota “xiiak” bezala ezagutzen diren elkarte musulman gutxituak kolonizatzaileen nahia babestu behar zuten aliatu gisa aurkeztu ziren.

Hala ere, beren babesak fruitu nabarmenik ekarri ez zizkiela ikusirik eta kolonizatzaileek ekarritako erlijio nahiz lurralde banaketa honetaz oharturik, segituan itzuli ziren beren sinesmenak defendatzera. Hori dela eta, elite musulman sunniek beraien proiektuak eta asmoak beren kabuz betetzea erabaki zuten. Hauen helburuen artean, aipatzekoa da ikuspegi arabiar batetik abiatuko zen siriarraren proiektu bateratzailea.

Pixkanaka-pixkanaka, beraz, prozesu honen parte ziren kideak indarrak batzen joan ziren eta geroz eta indartsuago bihurtu ziren. Ondorioz, potentzia agintaria, hau da, Frantzia, arabiar mugimendu honen presioari eutsi ezinik aurkitu zen eta etsipenez Siriako arabiar kulturala onartu behar izan zuen. Honek, beraz, eragin zuzena izan zuen aurretik ezarrita zeuden hainbat legeetan. Horien artean politika hezkuntza aipatzekoa izango litzateke; izan ere, unibertsitate nahiz eskolek arabiarren ondorioak biziki pairatu baitzituzten.

Denbora luzean, beraz, arabiarren prozesuaren ondorioz gorabeherak izan zituen mandatuak. 1920. urtean, azken honen egonkortzea eman zela zirudienean, Bigarren Mundu Gerrara arteko gatazkek laster ezeztatu zuten egoera faltsu hura. 1945. urtean mandatuak gogortze prozesu bat jasan zuen, baina mugimendu arabiarren ondorioz, porrot izugarria izan zen, mandatuaren indarra erabat ahuldu baitzen. Honek, beraz, Frantsesek Afrika iparraldean zuen

borrokaren ondorioz, Ekialde Ertaineko lurraldeetako frantsesen nolabaiteko desagerpena ekarri zuen.

### 3. Mandatua indarrean

Jada aipatu dugun bezala, Mandatuaren jatorria Lehen Mundu Gerra ondoren koka dezakegu, non Frantzia eta Erresuma Batua garaile atera ziren akordio honi zegokionez. Alde batetik, Britainiarrek Mesopotamia Otomandarraren<sup>10</sup> eta Siria Otomandarraren<sup>11</sup> zati handi bat bere kargu hartzea lortu zuten. Bestalde, Frantziarrek gainontzeko Siria, Libano, Ìskenderun<sup>12</sup> nahiz Turkiako hego-ekialdeko hainbat lurralderen kontrola eskuratu zuten.



Irudia 12: The Jerusalem Post.  
Frantziar eta Britainiarren  
Mandatuaren eragina jasan zuten  
lurraldeak

Lehen Mundu Gerra jada amaituta zegoelarik, 1920ko lehen hilabeteetan Parisen egin zen Bake Biltzarrean Nazioen Liga deituriko nazioarteko erakundea sortu zen. Honek legezkotzat eman zuen frantsesek eta britaniarrek lur hauekiko kontrola izatea. Azken hauen desagerpenak lehenetsun handiagoko arazo batzuei aurre egitea ekarri zuen: Irlandako independentzia-gerra (1919-1921) eta matxinada indiarra. Arrazoi horiengatik, eskualdea frantsesei uztea erabaki zuten 1919ko azaroaren 26an Damaskotik erretiratu.

Britainiar erretiratze horrek kezkatu egiten zituen arabiar nazionalistak, Damasko Siriako hiriburuaren inguruan, Lawrence de Arabia lagun britainiarraren laguntzarekin, estatu independente bat eratzea espero baitzuten. Faisal emiraren ekimenez, biltzar nazional bat biltzen saiatu ziren. Biltzar horrek Siria Handiaren independentzia aldarrikatzen zuen eta bere koroa 1920ko martxoaren 11n sortu zen. San Remoko konferentziak, 1920ko apirilaren 25ean, berretsi egin zuen Frantziak Siriari eta Libanoari buruzko agindua, 1920ko apirilaren 28an Nazioen Elkarrekin ofizialki asmatua. Egun honetantxe, «Siria eta Libanorako mandatu» bat eman zion ofizialki Nazioen Elkarrekin Frantziari (berez, protektoratu bat). Otomandar probintzia zahar horiek, erlijio-komunitarismoa formalizatu gabe, bi errepublika laiko bihurtu zituen.

<sup>10</sup> Mesopotamia Otomandarra: gaur egun Irak bezala ezagutzen den lurraldea.

<sup>11</sup> Siria Otomandarra: gaur egungo Palestina eta Transjordania lurraldeak hartzen ditu barne.

<sup>12</sup> Ìskenderun: iturri batzuetan izen honekin topa dezakegun arren, beste batzuetan “Alejandreta” moduan ere aurki dezakegu.

Gauzak horrela, 1923ko irailaren 29rako Frantziari Siriako nazioen gaineko Mandatua esleitu zitzaion, non Siria eta Libanoko lurraldeak aurkitzen diren. Honen ondorioz, eskualde hartako administrazioa frantsesen kontrolpean geratu zen hainbat lurraldetako gobernuren esku-hartzearekin batera. Horien artean aipatzekoak dira, Siriako Estatua, Gran Líbano edota Jabal al-Druze lurraldeenak.

Mandatua indarrean egoteak, horrenbestez, bi herrialde independente (Siria eta Libano) eta Hatay izeneko eskualdea ekarri zituen. Azken hau, mandatuaren baitan estatu autonomo gisa aurkezten zen, baina 1939an Frantziak onarturik ospatu zen erreferendumaz geroztik, Turkiaren parte izatera igaro zen.



Irudia 13: Global Risk Insights. *Hatay probintzia*

Mandatuak, beraz, bere horretan jarraitu zuen 1943.urtera arte. Izan ere, urte horretan sortu eta geroz eta botere handiagoa lortzen joan ziren gaur egun ezagutzen ditugun Siria, Libano eta baita Turkiaren parte den Hatay probintzia ere. Bestalde, Damaskon tropa frantsesak eragindako bonbardaketaren ondorioz, britainiarrek eskatuta, hauek Libanora erretiratu behar izan zuten. 1945ko abenduaren 13ko tratatu franko-britainiarrak Libanoko tropa frantses eta britainiarrak ateratzea erabaki zuen. Azken tropek 1946ko apirilaren 7an utzi zuten Beirut. Horrekin amaitu zen agintaldia eta frantziar presentzia Libanon.

Behin Frantziaren agintaldia amaituta, Al-Khoury Béchar Errepublikako lehendakariak eta Kontseiluko lehendakari zen Riad esSolh-ek, Itun Nazionalean oinarrian, independentziaren aro berri batera sarrarazi zuten Libano. Presidente Libanoko gizarte-egitura tradizionaletan oinarritzen zen; hau da, etnietan eta komunitateetan, eta, hala, nagusien arteko lehiak suspertuz. 1947ko legegintza-hauteskundeei esker, Konstituzioa aldatu ahal izan zuen bere agintaldia luzatzeko, 1949an amaitzen baitzen.

## 4. Ondorioak

Gaia landu ostean, interesgarria iruditu zaigu Libanok gaur egun Frantziarekin duen erlazioa aztertzea. Izan ere, orain arte aipaturiko gertaerek eragin izugarria izan baitute bi herrialde

hauen arteko harremanean.

Beraz, gaur egungo egoeran murgilduz, aipatzekoa da Hariri eta Libanoko gobernua beren herrialdeko ekonomia suspertzeko izugarrizko ahaleginei aurre egin nahian dabiltzala. Izan ere, munduko hirugarren herrialde zorpetuena da, 85.1 mila milioi dolarko zorra izanik.


Bestalde, zor publikoa hainbeste handitzeak Nazioarteko Diru Funtsa deritzon erakundeari sostengaezina egiten zaio. Honek herrialdearen hazkundera eragin zuzena izan du, 2018an honen tasa %2an jaitsiz. Hala ere, beste faktore garrantzitsu batzuek ekonomian zerikusi handia dutela egiaztatu da, beraz, hauek ere kontuan hartzekoak dira. 4 milioi inguruko biztanleria izanik, Libanok munduko errefuxiatuen kopuru nagusia hartzen du, hau da, herrialdearen %40 inguruko demografia osoa. Honek, zerbitzu publikoen gain eta estatuaren orekaren izugarrizko presioa suposatu du.

Egoera ekonomiko latz honek eta gobernuaren erantzukizun makalak, beraz, arriskuan jarzten du herrialde honek Frantziarekin duen erlazioa. 2018ko apirilean, Parisko konferentzia batean, Munduko Bankuak, Nazioarteko Diru Funtsak, hainbat instituzio nahiz 50 bat herrialde inguruk Libano laguntzeko asmoz 11 mila milioi dolar inguru ematea erabaki zuten.

2019ko uztailaren 19an Libanoko Parlamentuak pairatzen zuen gastu publikoa arrazionalizatzeko asmoz, aurrekontu bat aurkeztu zuen, non zorrotasun programak eta diru publikoaren jabetasun okerra kontrolatzeko programak martxan jarri ziren; honek, Barne Produktu Gordinaren defizitaren %7a mugatzea helburu izanik<sup>13</sup>.

Gaur egun, herrialdeko gobernua azkar jokatu beharrean aurkitzen da bertako ekonomia suspertu eta Frantziarekin duen nolabaiteko harremana mantendu nahi badu. Hala ere,

<sup>13</sup> Libanoko ekonomiaren XX.mendeko bilakaerari buruz gehiago jakiteko Texaseko unibertsitateko web orrialdera jo: [http://legacy.lib.utexas.edu/maps/atlas\\_middle\\_east/txu-oclc-28514370-37.jpg](http://legacy.lib.utexas.edu/maps/atlas_middle_east/txu-oclc-28514370-37.jpg)



Irudia 14: Texas University.  
*Libano economy*

historian zehar herrialdean egon izan diren etnia ezberdinetako sinesmenak errespetatuz, gobernuaren eratzeko gai izaten jarraitzen du.

Eguneko gobernuak Errepublikari parlamentario baten forma hartzen du, ordezkari nagusiak Michel Aoun Lehendakaria eta Hassan Diab Lehen Ministroa dituelarik. Esan daiteke hauek herrialdeko biztanleriaren ordezkariak har daitezkeela, biztanleriaren %59a musulmana eta %39a kristaua dela kontuan hartuz.

## 5. Bibliografia

### 5.1. Artikulua

Maitre, J. [TES2]. (2013, irailak 17 Lycée François 1er, Fontainebleau-n). *La révolution syrienne, de la guerre civile à la crise internationale* 2020ko apirilaren 24an [http://www.lyceefrancois1.net/IMG/pdf/la\\_revolution\\_syrienne\\_jp\\_filiu\\_1\\_.pdf](http://www.lyceefrancois1.net/IMG/pdf/la_revolution_syrienne_jp_filiu_1_.pdf) web orrialdean kontsultatua

### 5.2. Bideoak

Jarrige, M. [ARTE]. (2019, apirila). Le dessous des cartes - Histoire du Liban [Bideozko artxiboa]. *YouTube*. <https://www.youtube.com/watch?v=kNhZhieHDLE&feature=youtu.be> kanalean ikusia.

Le Monde. (2020, martxoak 8). Liban : pourquoi le partage religieux du pouvoir pose problème [Bideozko artxiboa]. *YouTube*. <https://www.youtube.com/watch?v=OvH12P3Paz4&feature=youtu.be> kanalean ikusia.

### 5.3. Entziklopedia

*Larousse* entziklopedia [https://www.larousse.fr/encyclopedia/divers/Liban\\_histoire/187612](https://www.larousse.fr/encyclopedia/divers/Liban_histoire/187612) (2020/04/24)

### 5.4. Hiztegiak

*CNRTL* hiztegia: frantsesa. <https://www.cnrtl.fr/> web orrialdean kontsultatua.

*Elhuyar* hiztegia: euskara-frantsesa. <https://www.elhuyar.eus/es> web orrialdean kontsultatua.

Larousse hiztegia: frantsesa. <https://www.larousse.fr/dictionnaires/francais/mandat/49058?q=mandat#48966> web orrialdean kontsultatua.

Linguee hiztegia: gaztelera-frantsesa. <https://www.linguee.es/espanol-frances> web orrialdean kontsultatua.

Reverso hiztegia: gaztelera-frantsesa. [https://www.reverso.net/text\\_translation.aspx?lang=ES](https://www.reverso.net/text_translation.aspx?lang=ES) web orrialdean kontsultatua.

Word Reference hiztegia: gaztelera-frantsesa eta gaztelera-ingelesa. <https://www.wordreference.com/es/> web orrialdean kontsultatua.

## 5.5. Irudiak

ANL.laorden. (2011, apirilak 13). *Cartes physiques de France* [Irudia 2]. 2020ko apirilak 11an <https://anllaorden.wordpress.com/2011/04/13/cartes-physiques-de-france/> web orrialdetik hartua.

Archives nationales, NC. (s. f.). *1848ko otsailak 23 eta 24ko barrikaden ondoriozko presta mozketak eta II. Errepublikaren aldarria*. [Irudia 5]. 2020ko martxoak 4 <https://www.gouvernement.fr/partage/8942-proclamation-de-la-deuxieme-republique-par-lamartine> web orrialdetik hartua.

Braquehais, B. (1871). *Voltaire eta Richard-Lenoir etorbideen arteko angeluko 1871ko Parisko Komunako barrikada*. “Parisko hiriko matxinatuak, 1871 Komuna”-n hartutako klixea. Parisko udaletxean 2011ko apirilak 5ean jasotako irudia. [Irudia 6]. 2020ko martxoak 4 [https://ca.m.wikipedia.org/wiki/Fitxer:Barricade\\_Voltaire\\_Lenoir\\_Commune\\_Paris\\_1871.jpg](https://ca.m.wikipedia.org/wiki/Fitxer:Barricade_Voltaire_Lenoir_Commune_Paris_1871.jpg) web orrialdetik hartua.

Centro de Estudios Estratégicos Magrebíes.(s. f.) *Magreb* [irudia 11]. 2020ko apirilak 10 <https://www.centroestudiosmagrebies.org/magreb/> web orrialdetik hartuta.

Club-des-voyages. (s. f.). *Carte du Liban* [Irudia 1]. 2020ko apirilak 11an <https://www.club-des-voyages.com/liban/carte.html> web orrialdetik hartua.

Delacroix, E., *Askatasuna herriaren gidari* [Irudia 7]. Saber y ganar, RTVE (2016, apirilak 12). 2020ko martxoak 4 <https://www.rtve.es/television/20160412/delacroix-pintor-gran-icno-hoy-nuestro-duelo-especial/1335801.shtml> web orrialdetik hartua.

Global Risk Insights. (2018, abuztuak 31). *Hatay probintzia* [Irudia 13]. 2020ko apirilak 14 <https://globalriskinsights.com/2017/04/hatay-immune-syrias-conflict-gri/> web orrialdetik hartuta.

Liébert, A. *Parisko udaletxeko barruko patioa Komunan* [Irudia 9]. 2020ko martxoak 4 [https://es.m.wikipedia.org/wiki/Archivo:Commune\\_de\\_Paris\\_H\\_de\\_Ville\\_cour\\_int%C3%A9rieure.jpg](https://es.m.wikipedia.org/wiki/Archivo:Commune_de_Paris_H_de_Ville_cour_int%C3%A9rieure.jpg) web orrialdetik hartua.



Pinterest. (s. f.). *Louis XVIII (1755–1824), Frantziako erregea, Saint-Esprit-eko ordeneko bandarekin (Antoine-Jean Gros-k egin)* [Irudia 4]. 2020ko martxoak 4 <https://www.pinterest.cl/pin/394768723575064841/> web orrialdetik hartua.

Ruiza, M., Fernández, T. y Tamaro, E. (2004). Napoleón Bonaparte. Biografía. *Biografías y Vidas. La enciclopedia biográfica en línea*. Barcelona (España) [Irudia 3]. 2020ko martxoak 4 <https://www.biografiasyvidas.com/monografia/napoleon/> web orrialdeko artikulutik hartua.

The Jerusalem Post. (2017, otsaila 22) *Frantziar eta Britainiarren Mandatuen eragina jasan zuten lurraldeak* [Irudia 12]. 2020ko apirilak 10 <https://www.jpost.com/blogs/arabIsraeli-conflict/british-and-french-mandates-482251> web orrialdetik hartuta.

The University of Texas. (s. f.-e). *Libano economy* [Irudia 14]. 2020ko apirilak 24 [http://legacy.lib.utexas.edu/maps/atlas\\_middle\\_east/txu-oclc-28514370-37.jpg](http://legacy.lib.utexas.edu/maps/atlas_middle_east/txu-oclc-28514370-37.jpg) web orrialdetik hartuta.

Wikipedia. (2011, maiatzak 16). *Karl Marx eta Friedrich Engels (1867)* [Irudia 8]. 2020ko martxoak 4 [https://es.wikipedia.org/wiki/Manifiesto\\_del\\_Partido\\_Comunista](https://es.wikipedia.org/wiki/Manifiesto_del_Partido_Comunista) web orrialdetik hartua.

Wikipedia. (2020, otsailak 27). *Henri Gouraud* [Irudia 10]. 2020ko apirilak 14 [https://en.wikipedia.org/wiki/Henri\\_Gouraud\\_\(general\)](https://en.wikipedia.org/wiki/Henri_Gouraud_(general)) web orrialdetik hartua.

## 5.6. Kapitulumua

LAURENS, Henry. *Le mandat français sur la Syrie et le Liban In: France, Syrie et Liban 1918-1946: Les ambiguïtés et les dynamiques de la relation mandataire* [en línea]. Damas: Presses de l'Ifpo, 2002 (generado el 11 avril 2020). Disponible en Internet: <<http://books.openedition.org/ifpo/3204>>. ISBN: 9782531594470. DOI: <https://doi.org/10.4000/books.ifpo.3204>.

## 5.7. Liburua

MÉOUCHY, Nadine (dir.). *France, Syrie et Liban 1918-1946: Les ambiguïtés et les dynamiques de la relation mandataire*. Nueva edición [en línea]. Damas: Presses de l'Ifpo, 2002 (generado el 11 avril 2020). Disponible en Internet: <<http://books.openedition.org/ifpo/3155>>. ISBN: 9782531594470. DOI: <https://doi.org/10.4000/books.ifpo.3155>.

## 5.8. Web orrialdeak

Bilboko Institut Français-ek, Groupe du Projet de Recherche taldeak eta EHUko frantses filologiako departamentuak antolatua (Nadia Brouardelle, Juan Manuel Ibeas-Altamira eta Lydia Vázquez). (s. f.). «Animal y espectáculo en el teatro francés actual (1979-2016):



zoescenografía e industria del actor no humano». 2020ko apirilak 12an <https://www.institutfrancais.es/bilbao/evento/journee-internationale-animal-et-francophonie-ii/> web orrialdean kontsultatua.

Fundéu BBVA, Real Academia Española-k gomendatua. (2015, maiatzak 6). «Inglaterra», «el Reino Unido» y «Gran Bretaña» no son lo mismo. 2020ko apirilak 22an <https://www.fundeu.es/recomendacion/gran-bretana-inglaterra-reino-unido/> web orrialdean kontsultatua.

García, J. (2019, azaroak 13). Mandato Francés. 2020ko apirilak 1, <https://paisesdesaparecidos.wordpress.com/siria-mandato-frances/> web orrialdean kontsultatua.

Léon Trotsky, C. (2005, ekainak 16). Liban : une création du colonialisme français dans un Moyen-Orient divisé par l'impérialisme. 2020ko apirilak 13an . <https://www.lutte-ouvriere.org/documents/archives/cercle-leon-trotsky/article/liban-une-creation-du-colonialisme-6377> web orrialdean kontsultatuta.

Les clés du Moyen-Orient. (2010, otsailak 2). *Liban*. 2020ko apirilak 24an <https://www.lescledumoyenorient.com/Liban.html> web orrialdean kontsultatua.

Maxicours. L'idéologie de Vichy et sa pratique - Maxicours. 2020ko apirilak 18an <https://www.maxicours.com/se/cours/l-ideologie-de-vichy-et-sa-pratique/> web orrialdean kontsultatuta.

Monnaie Magazine. Fin du protectorat français de Syrie et du Liban. 2020ko apirilak 11n <https://www.emonnaies.fr/le-blog-emonnaies/fin-protectorat-francais-syrie-liban/> web orrialdean kontsultatuta.

Organisation International de la Francophonie (OIF). Qui sommes-nous? 2020ko apirilak 12an <https://www.francophonie.org/node/5> web orrialdean kontsultatua.

Waked, C. (2019, abuztuak 21). Francia-Líbano: una relación que está cambiando todo el tiempo. 2020ko apirilak 18an <https://www.thepoliticalroom.com/analisis/francia-libano-una-relacion-que-esta-cambiando-todo-el-tiempo/> web orrialdean kontsultatuta.

Wikipedia “Ískenderun” 2020ko apirilaren 28an <https://eu.wikipedia.org/wiki/%C4%B0skenderun> web orrialdean kontsultatua.

Wikipedia “Mosul” 2020ko apirilaren 18an <https://eu.wikipedia.org/wiki/Mosul> web orrialdean kontsultatuta.

Wikipedia “Tripoli” 2020ko apirilaren 18an <https://eu.wikipedia.org/wiki/Tripoli> web orrialdean kontsultatuta.

## 6. Gehigarria

**Pierre La Mazière** kazetariak 1932an *Le Monde* egunkarirako iratzitako iruzkin ofiziala: [https://fr.m.wikipedia.org/wiki/Mandat\\_fran%C3%A7ais\\_en\\_Syrie\\_et\\_au\\_Liban](https://fr.m.wikipedia.org/wiki/Mandat_fran%C3%A7ais_en_Syrie_et_au_Liban) web orrialdean bilatu dugu duela ia mende bateko iruzkina bera egunkariko iturritik hartzerik izan ez baitugu. Eusakara egindako itzulpena artikulua amaieran aurki daitekeen gehigarria.

### **Pierre La Mazière kazetariaren iruzkin ofiziala eukaratuta:**

[...] Agintaldia ezarri zenean, trenbideak 707 kilometro luze zituen gaur egun 1.663 kilometro dira; portu bakarra zegoen hornituta: Beirut. Gaur egun, Tripolin (Latakia)<sup>14</sup>, Alexandretak<sup>15</sup> (İskenderun) Europako eraikinak hartzeko instalazioak eta tresnak ditu. Halifako portuak tona askoko ontziak jaso ahal izango ditu eta datorren uztaila baino lehen bukatuko da.

Interes orokorreko errepide-sarearen luzera ez zen 650 kilometro baino gehiagokoa; horietatik 470 baino ez zeuden funtzionatzeko moduan. Gaur egun 1.868 kilometrokoa da. Kopuru horri basamortuan zehar komunikazioak bermatzeko 1.500 kilometro pista gehitu behar zaizkio.

1920an 700.000 hektarea landu daitezke eta egun landu daitezkeen lurrazalak 1.600.000 hektareak gainditzen dituzte. Beraz, 900.000 hektarea balioztatu ziren: Alepo eskualdea, Antioquia, Maitasunaren lautada, Ghoutaren oasia Damaskotik gertu. Gari- eta garagar-uzta bikoiztu egin dira hamar urtean; kotoiaren-, tabakoaren-, frutaren- eta olibaren-uztak ere antzeko gorakada izan dtute.

Ardi- eta ahuntz-aziendak nabarmen egin du gora. Latakia inguruan asfalto-biltegiak eraiki dira eta zementu-fabrika garrantzitsu bat ezarri da, Chekka eskualdeko kare-hobi aberatsak erabiltzen dituena. Industriari eusteko, energia elektrikoko enpresen potentzia orokorra 16.940 zaldi izan zen, 1920an 3.264 zaldi izanik. Lantegi berriek 22.000 zaldiko gehigarria emanen dute.

**14 Tripoli:** Libiako hiriburua da. Gaur egun herrialde hartako hiri garrantzitsuena da, eta bertan Libiako Gobernu Zentralak eta Administrazioak aurkitzen dira.

**15 İskenderun:** Hatay probintzian dagoen egungo Turkiako hiri bat da.

Azkenik, Mosuleko<sup>16</sup> petrolio-ontziak garraiatzeko Sirian zehar hodi bat eraikitzeko azterlanak amaitu dira eta aurretiazko lanak egiten ari dira. Hodiak joan den hilean hasi ziren instalatzen, trazatu programarekin bat etorriz eta obrak 1934ko uztailaren amaieran amaitzea aurreikusten dira.

Egun potentzia mandatariak irakaskuntza garatzeko zer egiten duen aztertzen badugu , zer ikusten da? 180.000 ikasleri ikasketak edukitzeko aukera eskaintzen dieten 2.191eskola ofizial edo pribatu, Sei lizeok (Damasko, Alepo, Homs, Hama, Antioquia, Deir Ez-zor) bigarren hezkuntza ematen dute. Damaskon, kultura musulmanaren gune nagusia, unibertsitate batek Otomandar erregimenak utzitako medikuntza fakultateaz gain, zuzenbide fakultate bat, letren goi mailako eskola bat eta arabiar akademia bat ditu, arabiar hizkuntza literarioa finkatzea helburu duena.

**16 Mosul:** Irakeko iparraldean aurkitzen den Kurdistan osoko hiririk handiena da. Herrialdeko hirugarren hiri handiena da Bagdaden eta Basoraren atzetik .